

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2019 Foru Dekretua, irailaren 24koa. Onestea prezio publikoak, Arabako parke naturaletako arreta guneeetan, Garaioko Interpretazio Zentroan eta Sobrongo Ur Museoan saltzen diren salgaiei ezartzekoak

Diputatu Nagusiaren ekainaren 11ko 259/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion hasteari Arabako 2000 Natura Sareko sustapen materialen prezio publikoak onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektua lantzeko prozedura.

Diputatu Nagusiaren uztailaren 31ko 364/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion "Arabako 2000 Natura Sareko zenbait sustapen artikulua saltzeko aplikagarri diren prezio publikoak onesteari" buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuari.

Entzunaldia eta jendaurrean jartzeko informazio aldia izapidetu dira, baina ez da ekarpenik egin.

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak bere artikuluetan ezartzen du Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoa osatzen duten entitateen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoaren arauketa.

Horregatik, eta araudian xedatutakoarekin bat etorritik, proposatzen da onespena ematea Arabako parke naturaletan, Garaioko Interpretazio Zentroan eta Sobrongo Uraren Museoan artikulua eskuratzen dituztenei eskatu behar zaizkien prezio publikoei. Artikulu horiek ebazpen honekin batera doan eranskinean zerrendatzen dira.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak batera proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Onspena ematea ebazpen honen eranskinean adierazten diren eta Arabako parke naturaletan, Garaioko Interpretazio Zentroan eta Sobrongo Uraren Museoan salduko diren artikuluen prezio publikoak aplikatzeari.

1. artikulua. Lotuta dagoen jarduera eta zenbatekoa

Prezio publikoak ordaindu beharko dira Ingurumen eta Hirigintza Sailak salgai dauzkan artikuluetatik, zeinak ebazpen honen eranskinean jasotzen baitira. Eranskin horretan jasotzen dira zein diren artikulua eta zein prezio aplikatuko zaion produktu bakoitzari; prezioa BEZik gabe eta BEZarekin zehaztuko da.

2. artikulua. Ordaintzera behartuta daudenak

Ordaintzera behartuta daude publikoarentzako salgai jartzen diren artikulua erosten dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

3. artikulua. Ordaintzeko beharra eta modua

Eskuratutako artikuluen prezioa ordaintzeko betebeharra sortzen da.

Parke naturaletako, Garaioko Interpretazio Zentroko eta Sobrongo Uraren Museoan harrera guneeetan edo Arabako Foru Aldundian ordainduko da, eskudirutan, ordaintzeko egingo den ordain gutunaren bidez edo banku transferentziaren bidez.

4. artikulua. Kudeaketa eta administrazioa

Arabako Foru Aldundiak kudeatu eta administratuko ditu foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoak, eta haren zerbitzuek bideratuko dituzte.

5. artikulua. Dekretu honek argitaratzen den egunaren biharamunetik izango du indarra

Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

ERANSKINA

	PROPOSATZEN DEN PSP (BEZA APARTE) €	PROPOSATZEN DEN PSP (BEZA BARNE) €
Imana	0,83	1,00
Puzlea	4,13	5,00
Peluxe-zko animalia	4,96	6,00
Kutxatila	3,72	4,50
Pintura/klarion sorta	1,65	2,00
A5 libreta txikia	2,48	3,00
Oihalezko poltsa	3,31	4,00
Motxila sokaduna	4,13	5,00
Katilua	3,31	4,00
Kristalezko botila	3,31	4,00
Kantinglora/bidoia 400 ml	3,72	4,50
Euritakoa	7,44	9,00
Eskularruak	3,31	4,00
Buffa. Txanoa	3,31	4,00
Txanoa	4,13	5,00
Helduentzako zira	12,40	15,00
Umeentzako zira	9,92	12,00
Helduentzako kirol jertsea	16,53	20,00
Umeentzako kirol jertsea	12,40	15,00
Helduentzako elastikoa	8,26	10,00
Umeentzako elastikoa	6,61	8,00